



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua:

Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko uztailaren 7an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, *aho batez*:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 7 de julio de 2024, aprobó, *por unanimidad*, la siguiente Declaración Institucional:

Erakunde Adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako eskola batean izandako eraso matxista jakin berrien ingurukoa.

Declaración Institucional, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el reciente conocimiento de agresiones machistas en una escuela de Donostia.

"Donostiako Udalak arbuio gogorrena azaldu nahi du berriki publiko egin diren eraso matxisten aurka, eta bere lagunza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoa pairatu duten emakumeei eta beren ingurukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak euren esku jarriko ditu, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezaketen lagunza guztia ere."

"El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián quiere expresar su más firme rechazo a las agresiones machistas que se han hecho públicas recientemente, así como mostrar su total apoyo y solidaridad a las mujeres agredidas y a sus entornos. El Ayuntamiento pondrá a su disposición toda la información y los recursos de que dispone, incluyendo toda la ayuda necesaria en el proceso de recuperación."

Aipagai ditugun kasuak aspaldikoak diren arren, orain egin dira publiko eta, beraz, orain izan da gertakari horien jabe Donostiako Udal. Kasuaren dimentsioa nolanahikoa ez dela kontuan hartuta, esku-hartze berezia egingo du Donostiako Udalak, arbuio publikoarekin batera, erasoa jasan duten pertsonei babesak eskainiz, eta salaketa berrietarako haren atea irekiaz, baita erasoa jazo ziren eskolarekin elkarlana bilatuz ere.

Aunque los casos a los que nos referimos se produjeron hace tiempo, es ahora cuando se han hecho públicos, y el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ha sido consciente de ellos. Teniendo en cuenta la dimensión del caso, el Ayuntamiento de Donostia realizará, junto con el rechazo público, una intervención especial ofreciendo apoyando a las personas agredidas y abriendo su puerta a nuevas denuncias, así como procurando la colaboración con el centro donde se produjeron las agresiones.

Azpimarratu egin nahi dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela eta gizartearen berebiziko arazoa dela, berori jasaten duten eta horri aurre egiten dioten emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko zein moralaren aurka jarduten baitu.

Queremos subrayar que la violencia machista constituye una grave violación de los derechos humanos, además de un problema social de primer orden, ya que atenta contra la dignidad y la integridad física y moral de las mujeres que la padecen y enfrentan.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta

La violencia contra las mujeres tiene agresores y víctimas individuales, pero tiene claramente un problema mucho más profundo como causa: una



mendean izan nahi dituen ideología eta sistema osoa. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza. Aitzitik, generoaren gaineko aurreiritzia, gizartearen aski errotuta dauden horiek dira, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile. Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamendua. Ez ditu herritar osotzat hartzen, gizonezkoen maila berean, eta ez die aukerarik ematen oinarrizko eskubideen jabe izateko.

Bada, Donostiako Udalak, emakumeen giza eskubideak benetan baliatzen direla bermatzeaz arduratzen den erakunde publikoa denez, neurriak sustatzen jarraituko du, bai udal-erakundeek eta herritarrek, oro har, edozein eraso matxistaren aurrean berehala eta irmo erantzun dezaten, bai biktimari lehentasunezko arreta eman dakion, baita emakumeei indarkeriari aurre egiteko tresnak emango dizkieten prebentzio-neurriak garatu daitezen eta erasotzaileen zigorgabetasun soziala desagerraraz dadin ere. Era berean, indarkeria matxistarik gabeko bizitza askeak bermatzeko lanean jarraituko du Udalak, bere eskumenak erabiliz.

Hori dela eta, honako hau ERAKUNDE ADIERAZPEN hau adierazten du Donostiako Udalak:

• *Publikoki salatu diren eraso matxisten aukako arbuaia irmoki erakutsi nahi du, baita aurrerago ildo beretik salatu litezkeenen aukakoa ere.*

• *Jakin badakigu gisako salaketen atzean salatzeko urratsa egin ez duten emakume edo pertsona gehiago egon daitezkeela. Horiek baleude, haien bizi-pena kontatzeko urratsa egin dezaten animatu nahi ditu Donostiako Udalak; Donostiako Udalak entzun eta sinestuko ditu, eta bere eskura izan ditzakeen bitartekoak eskainiko dizkie.*

• *Zentzu horretan, erasoak eman ziren eskolarekin harremanetan jarriko da Donostiako Udalak, erasoak jasan dituzten pertsonen osatzean elkarrekin lan egiteko, baita gauza bera egiteko ere balizko salaketa gehiago baleude.*

ideología que quiere tener controladas y subordinadas a las mujeres. Por tanto, esta violencia no es el resultado de actos aislados o inexplicables; sino que son los prejuicios de género, tan arraigados socialmente, los que generan este tipo de graves y lamentables consecuencias. El orden social establecido obliga a las mujeres a una situación de desigualdad y dependencia material, a una vida precaria. Las mujeres no son consideradas ciudadanas de pleno derecho, es decir, al mismo nivel que los hombres, ni se les permite ser titulares de derechos fundamentales.

Pues bien, el Ayuntamiento de Donostia, como entidad pública encargada de garantizar el ejercicio efectivo de los derechos de las mujeres, seguirá impulsando medidas para que tanto las entidades municipales como la ciudadanía en general respondan de forma inmediata y contundente ante cualquier agresión machista, para que se preste una atención prioritaria a la víctima, para que se desarrollen medidas preventivas que proporcionen a las mujeres herramientas para hacer frente a la violencia, así como para erradicar la impunidad social de sus agresores. Asimismo, el Ayuntamiento, en el ejercicio de sus competencias, seguirá trabajando para garantizar vidas libres de violencia machista.

Es por ello que el Ayuntamiento de Donostia realiza la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:

• *Al Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián quiere mostrar su más firme rechazo ante las agresiones machistas que han sido denunciadas públicamente, así como ante las que, en este sentido, podrían ser denunciadas más adelante.*

• *Sabemos que detrás de denuncias de este tipo puede haber más mujeres o personas que no hayan dado el paso de denunciar. Si las hubiera, el Ayuntamiento de Donostia las anima a que den el paso de contar su vivencia, ya que esta institución las escuchará y las creerá, y pondrá a su disposición los medios con los que cuenta.*

• *En este sentido, el Ayuntamiento de Donostia se pondrá en contacto con el centro escolar donde se produjeron las agresiones, a fin de colaborar en la recuperación de las personas agredidas, así como para actuar en el mismo sentido en el caso de que hubiera más denuncias.*



- *Eraso matxistak jasan eta urteetan horiek publiko egin gabe barnean eraman izanak sortu ahal izan dituzten minak bere onera etortzeko prozesuan aktiboa izango da Donostiako Udala”.*
=====

- *El Ayuntamiento de Donostia participará activamente en el proceso de reparación del dolor de las personas que han soportado agresiones machistas y las han llevado dentro de sí durante años, sin hacerlas públicas”.*
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**